



Bertsozale Elkartearen Berripapera

# Bertsozalea

[www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus)

## 2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko argitalpena salgai

**Bertsozale Elkartearen eskuratu ahal izango duzu, postaz ala Bertsozale Elkarteetara joanda. Bazkideok prezio berezian izango duzue.**

Labetik atera berritan iritsi zen Durangoko Azokara 2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko argitalpena. Duela urtebeteko bizipenak berriro gogora ekartzeko aukera ematen du ekoizpenak.

Txapelketako hamalau saioretan bildutako bertsoen lagin zabala dakar liburuak; horiek entzuteko aukera ere badago, liburuan datorren QR kodeari jarraituta. Baina ez hori bakarrik: ohi bezala, bestelako datu esanguratsuak jasotzen ditu liburuak, hala nola, bertsolari parte-hartzaileak, ariketak, puntuazioak... bertso doinu berrien partiturak eta adituen analisiak ere aurkitu daitezke.

Liburua postaz nahiz Bertsozale Elkartearen egoitzetan eskura daiteke.

Pasa den astean izan zen bulegoetan, eta behin Gabonetako oporrak pasatakoan, zenbait astez izango da berriro ere horietan eskuratzeko aukera.

Etxean jaso nahi izanez gero, [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian egokitutako formularioa beteta egin behar da eskaera. Gogoan izan bidalketa gastuengatik 5 euro gehituko zaizkiola salerosketari, eta bidalketa urtarilean gauzatuko dela.

Pasa den astean bezala, Gabonetako oporren ondotik ere zenbait astez Arabako, Bizkaiko eta Nafarroako Bertsozale Elkartearen, Bertsolarien Lagunak elkartearen nahiz Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen egoitzetan eskuratu ahal izango da liburua; egoitzen helbide guztiak eskura

dituzu [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian. Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen jaso nahi izanez gero, bete [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian dagoen formularioa egoitzara liburu bila agertu aurretik.

Bazkideek 30 euroren truke eskuratu ahal izango duzue argitalpena, eta 35 euroren truke bazkide ez direnek. Esan bezala, etxean jasotzeko aukera eginez gero, bidalketa gastuak gehitu behar zaizkio prezioari.

Bertsozale Elkartetik eskerrak eman nahi dizkiegu argitalpena burutzeko lanean izan diren parte-hartzaile guztioi.



**URTE BERRIRAKO KOPLAK**  
Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen

Hogeita hiruak falta duenean lits bat,  
Hogeita lau dugu sorburu berrizat:

Irudikaezinak,  
utopia printzak  
entzugarri bihurtu  
bitza bertso gintzak.

Eta astin ditzala  
jendeon bizitzak,  
munduaren habeak  
ta lurraren mintzak.

Urratuak ta minak,  
garratzak eta hitsak  
goza diezazkigula  
doinuak ta hitzak.



Bertsoaldi hautaketaz gainera, beste hainbat osagai ere baditu argitalpenak: partiturak, adituen analisiak, sailkapena... //XDZ

# Txapeldun "berriak" ditugu Nafarroan eta Bizkaian

**Julio Sotok eta Nerea Ibarzabalek jantzi dute Nafarroako eta Bizkaiko txapela, hurrenez hurren. Aurtengo txapela oraintsu estreinatu duten arren, izendapenak ez ditu berri harrapatzen: Sotok seigarrena du eta Ibarzabalek bigarrena. Bertsoa.eus atarian elkarrizketa egin zaie finalaren ondotik, eta hauxe da solasaldien lagin txiki bat. Erantzun eta elkarrizketa osoak, Bertsoa.eus webgunean.**

"Aho zapore gozoa"rekin harrapatu du **Bertsoa.eus**-ek **Julio Soto**. Anaitasuneko finaletik bi gauza jarriko lituzke balioan Sotok: "Hasteko eta behin oholtza gainean ikusi zen eta entzun zena. Aipatu izan dut egunotan, beti egon izan direla Nafarroan bertsolari oso onak, baina kopuruz esango nuke orain bezainbeste sekula ez dela egon, eta **bertsolari gazteen agerpena benetan nabarmentzeko modukoa iruditzen zait**: egiten ari direna, daukaten maila eta noski, horra heltzeko bertsoarekin hartu duten dedikazio eta itsumen hori". **Entzule kopurua eta aniztasuna** ere azpimarratu ditu: "Entzulea asko gaztetu da. Uste dut konsonantzia bete-betea doala oholtza gaineko aldaketarekin".

Nafarroako Bertsolari Txapelketako edizio honetan Nafarroa hegoaldean aritu da Soto finalerako bidean: Vianan eta Agoitzen sekula kantatu gabe, ilusio handiarekin bizi izan ditu saioak, eta sinbolikoki ere polita egin zitzaioala aitortu du. Hala ere, eta urtean zehar ere bertsoak lur hauetan bere tokia izan dezan, txapelketak emandako indarra baliatuta, bertako eragileekin lanketa egin eta bertso plaza berriak sortzeko beharra nabarmendu ditu. Hausnarketan harago joan eta kezka ere plazaratu du: "Azken urteotan Nafarroako bertsolariok maila gero eta maila hobean goazenean, **Nafarroan plaza asko galtzen ari da**. Nafarroan lantalde bat martxan jartzera goaz, diagnosi hau partekatzen duguna. Ea gai garen bertso plaza arnas berritze bat emateko. Oholtza gaina loraldi betean dago, baina oholtzapean ez dago hainbestekorik. Uste dut ez dela hain zaila honi buelta ematea, eta emango diogula".

Txapela jantzi eta pare bat egunetara elkartu da **Bertsoa.eus** **Nerea Ibarzabalekin**. Pozik, baina oraindik **poz hori egonkortzeko** duela aitortu du: "Uste dut laster konektatuko dudala poz handiago batekin, edo momentu eder eta zentzu batzuetan historiko batean, han izanaren poza".

Zortziko handian izandako hanka sartzearen ondorioz, amore emateko ahotsa somatu zuen bere baitan: "Zorionez, beste bat ere bazegoen, ardura profesionalarena; eta aspirazio pertsonaletik harago, **ardura kolektibo eta ikuskizunari zor zaion arduratik** segitu nuen han egoten". Aurrera jarraitzeko kemen horretan, Txapelketa Nagusiko esperientziak horretan lagundu ote dion galdetuta, seguruenik baietz erantzun du: "Ez da kontzienteki ikasten den zerbaitekin, gorputzetik ikasten den zerbaitekin" dela iritzi du.

"Zein ahots eder eta interesante, eta zer **bertso maila...**" dio finalari buruz, bere bertsoakideen lana nabarmenduz. Xabaten lana azpimarratu du bereziki: "Hain seguru ikusten nuen Xabat [buruz burukoan]; oraindik hori kudeatzen nabilela uste dut. Oso puntu gutxi dira, badakit gainera epaileen lana ere zaila dela. Txapelketak beti dauka hau modu batean edo bestean; eta aldiro hori jakinda joaten gara, baina... kudeatzeko da hain zaila", aitortu du.

**Amaloko elkarte**an egin du hitzordua bertsolariak. Batetik, bertsolarietan uztekoan zenean bertsoan jarraitzeko bultzada eman dion lagunartea topatu du bertan: "Eusten zaituen eta bertsoa konektatzen zaituen sare bat edukitzea oso inportantea

**Plazan pozik eta ilusioz** ari da Soto, bereziki azken urteetako txapelketek erantsitako zamatik aske orain: "Ilusio handia dut agendan dauzkadan hurrengo saioetan kantatzeko".

Nafarroa Garaiko txapeldunaren agurra  
Neurria: Hamabikoa, handiaren moldekoa, 12 puntuz  
Doinua: *Israelek Gaza piztien eran*

Israelek Gaza piztien eran ta mundua bestaldera begira Sahararrak oihuka ari dira etorkinak egurrezko pateran eskaleak bost xentimo plateran zenbait nortasun sexual arazo guk gizonok emakumeei eraso ta euskara zapaltzaileen ziegan sinetsi nahi dut gizakiarengan nahiz motiborik ez dugun ematen nik esperantza dut egunen baten justizia hasiko dela hegan. (Justizia hasiko dela hegan nik esperantza dut egunen baten nahiz motiborik ez dugun ematen sinetsi nahi dut gizakiarengan).



da". Bestetik, txapelketa prestatzen aritu da han taldean. **Hurrengo Bizkaiko txapelketan** parte hartu ala ez duen hartuko galdetuta, oraindik erabakia hartzeko garaia ez dela dio Ibarzabalek: "Dena hain zaratatsua den eta pantailek hainbeste arreta kentzen diguten garaian, oraindik ere jendea bertso saioetara joan eta guri %100eko arreta eskaintzeko prest dago, eta hori eskertzen egongo gara plazetan".

Bizkaiko txapeldunaren agurra  
Neurria: Hamabikoa, handiaren moldekoa, 8 puntuz  
Doinua: *Dozena bat bertso berri B*

Barrua bete zaigu hemengo grina arnastean hau gal daiteke euskara hezkuntzan ez irakastean bihotza Gazan astean hil nahiko duten gaztean kartzelak lepo ta denok preso merkatu askean badirudi kontrastean argi izpi bat desastrean dena izozten dela baten bat kantuan hastean. (badirudi kontrastean argi izpi bat desastrean dena izozten dela herri bat kantuan hastean).



# Salgai jarri dira Bertso Eguneko sarrerak

**Astran izango diren bazkari eta bertso jaialdirako sarrerak dira bertsozaleak.eus salgai jarri direnak, baina egun osoan izango da bertsoaz gozatzeko aukera. Hemen dituzu xehetasunak.**

Duela zenbait aste aurreratu bezala, urtarrilaren 27an Gernika-Lumon izango da Bertso Eguna. Bertsozale Elkartea eta Lilibertso bertso-eskola egun osoko egitaraua ari dira prestatzen elkarlanean.

10:30ean dute bertsozaleek hitzordua Muxikan, Ariatzan. Bertakoa da Garriko bertso-eskola, aitzindarietako bat bertsoarako elkargune izateari dagokionez. Ondoren, 12:00etan, Astra aurrean elkartuko dira zaleak eta lurralde ezberdinetako bertso-eskolak ariko dira tabernaz taberna ibilbidea osatuz.

15:00etan bazkaria eskainiko da Astran, eta 17:30ean hasiko da eguneko bertso jaialdia: Amets Arzallus, Etxahun Lekue, Maialen Lujanbio eta Saioa Alkaiza izango dira bertsoan. 35 euroren truke lortu daitezke bazkarirako eta jaialdirako, bietarako balio duten sarrerak [www.bertsozaleak.eus](http://www.bertsozaleak.eus) atarian. Ondoren, gauean ere izango da festa jarraitzeko aukerarik, eta egitaraua biribiltzeko lanetan ari gara.

## Gabonetako Hitzetik Hortzerak

**Programak ez du atsedunik hartuko egunotan: abenduaren 30ean eta urtarrilaren 6an izango da bertsozaleak ETB1en.**



Bertsolari txapelketen olatuaren ondotik, bertsoak han eta hemen jarraitzen du, bai plazan eta baita telebistan ere, besteak beste. Hala, Hitzetik Hortzerak ere ez du etenik izango Gabonetan.

Aste honetako saioarekin urtea behar bezala agurtu nahi du programak: luxuz eta dotoreziaz jantzitako Hitzetik Hortzera izango da. Xanpaina hartuta, Maria Cristinatik ariko da Mirari 2023ko bertsoaldi gogoangarrienen errebasoa egiten. Abenduaren 30ean eskainiko da atala.

Bestalde, urtea hasteko programa berezia prestatu du Hitzetik Hortzerak. Aurreko denboraldietan egin bezala, bertsozale baten ibilbidean jarriko du begia (edo kamera) saioak: Aitor Mendiluze bertsozalearekin izango da Mirari solasean. Hizketagai izango dituzte bertso-eskolako lehen egunak, txapelketak, transmisioa eta doinuak, besteak beste. Ibilbideko kontakizuna laguntzeko, andoaindarraren hainbat bertsoaldi ekarriko dira pantailara eta gogora. Urtarrilaren 6an izango da programa hau.

Bi atalak 21:00etatik aurrera eskainiko dira ETB1en; eta ondoren, edonoiz ikusi eta entzun ahalko dira EITB Nahieran atarian.

Urtea dotore jantzita agurtuko dugu Hitzetik Hortzeran. //XDZ



## Puntu jarrita

JONE LARRINAGA DAÑOBEITIA

Ez da erraza bertso-eskolako ume eta helduek nigandik zer jasotzen duten esatea, Maite, ez eta haiei zuzenean galdetu barik beren sentipenez aritzea ere. Hala ere, erraz azalduko dizut nik neuk ikasi dudana.

Txapelketak, norbere diskurtsoa plazaratu nahi eta forman txukun jartzeko gaitasun ezak, edo entrenatu eta hobekuntza gura bestekoa ez dela sentitzeak, frustratu egiten nau batzuetan. Baina, bertso-eskolara eta hezkuntza arautuko ikasleengana joanda, guzti hau jolas bat dela gogoratzen dut, ni umetan hainbeste harrapatu ninduen jolas bera.

Bertsolaritzara hurbiltzen ari denari begietan ikusten zaio sortzeak dakarren zirrara, ez da imitazioz ari eta ideia interesgarriak plazaratzen ditu. Bertso asko kontsumitu dugunok, ostera, bertsoaren estandarizatorako joera dugula sumatzen dut batzuetan; bada, hortik aldentzen diren gauzek aparteko xarma dute. Dibertigarriak zaizkit, naturaltasunez sortzean, errimatutako esaldietara ikasleek dakartzaten hitzak, adibidez; badut haiei lapurtutako oin bat edo beste!

Are gehiago, gureak bertsolariak baino gehiago behar ditu bizirauteko, eta taldean ez bada bertsolaritza zentzugabea da. Horregatik gustatzen zait ikaslea entzulegoan txalo jotzen ikustea, bat-bateko taldeko gaztea eskean etortzea entzun berri duen doinua audioz grabatuko ote diodan, bertso-eskolako laguna epaile taldean sartzerantz animatzea, hezkuntza arautuko umea institutuko saioan gai-jartzaile ibiliko dela jakitea... Ekosistema honetan bakoitza bere lekua bilatzen ikusteak niri ere taldearen parte sentitzen lagundu dit, bai eta nik talde horretan bete nahi dudana paperaz hausnartzen ere. Garazi, hurrengo galdera zeuretzat: Nola aurkitu zenuen zure lekua bertso munduan? Nolako da plaza publikoan bertsotan aritu gabe bertsolaritzaren ekosistemaren katebegi izatea?

# Koplak

## Ahots Baten sormen egonaldia egingo da egunotan

Abenduaren 26tik 30era egingo da Beizamako aterpetxean Ahots Baten sormen egonaldia. Euskarazko ahozko kulturgintzan dabilten 15 eta 22 urte bitarteko gazteak elkartuko ditu egonaldiak. Euskaltzaindiak antolatuta eta Bertsozale Elkarte laguntzaile dela, bertsolaritzak izango du tartea Ane Labaka eta Nerea Ibarzabal bertsolarien eskutik. Abenduaren 27tik 29ra izango dira Nafarroako Bertsozale Elkarteak antolatutako Negulekuak ere Beintza-Labaienen.

## Poto-Finixa



Oinak bertsotan

Josu Santesteban. Xepelar Dokumentazio Zentroa

## Ahalduntze Bertso Eskolako izen-ematea bigarren hiruhilekorako

Ikasturte osorako ez ezik, hiruhilabeteka izena emateko aukera eskaintzen du Ahalduntze Bertso Eskolak. Lehen hiruhilekoa pasata, bigarrena hasi baino lehen izen-ematea irekiko da honenbestez: urtarrilaren 4an irekiko da [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) webgunean.



Ilustrazioa: Higinia Garay

Gure kultura sustatzen dugu, gure *gizartearen* sustraitzea eta kohesioa *bultzatzeko*.

